

B MAILA



2025

SORALUZEKO XL. IDAZLAN LEHIAKETA



SORALUZEKO
UDALA

TRENEAN HARRAPATUTA

B MAILA

1.saria

IZANE PEÑA
MIRA

Argia joan da, ez dakigu noiz bueltatuko den eta noiz ahalko garen irten bagoitik. Momentuz, bi giltza lortu ditugu, hirugarrena falta zaigu. Espero dugu azkar topatzea falta zaiguna trenetik azkar irtetzeko. Etsitzen hasi naiz, Paule negarrez dago, Lukeni beldurra sartu zaio eta Naia lasai mantentzen den bakarra da. Askok nahiko duzue jakin zela heldu garen puntu honetara, beno, hau horrela gertatu da:

Eskolatik atera eta hondartzara joatea erabaki genuen. Etxera joan, hondartzara joateko prestatu eta plazan lagunetik elkartu ginen. Seietan Debara zihoan trena hartu genuen, eta bertara abiatu ginen.

Treanean sartu ginen eta bat-batean, trena gelditu egin zen. Momentu horretan, pantaila bat irten zen sabaitik. Bertan, pertsona bat zegoen eta hitz egiten hasi zen. Ez genekien zein zen, hori bai, behintzat euskaraz hitz egiten zekien. "Pistak bilatu irtetzeko", esan zuen. Orduan, pantaila desagertu egin zen.

Pistak bilatzen egon ginen eta bat-batean, Pauleren erloju-mobilera deitu zuten. Orduan pentsatu nuen dei hori aprobetxatu ahal genuela trenetik irtetzeko. Paulek deiari erantzun zion, baina ez ziren bere gurasoak, pantailan agertutako pertsona zen. Hau esan zigun: "Lurrean arretaz begiratu lehenengo pista topatzeko". Lurrean bilatzen hasi ginen, eta bat-batean, Lukenek baldosa bat zapaltzerakoan, apurtu egin zen. Zati guztiak kendu, eta paper bat topatu genuen. Mezu bat idatzita zegoen. Hau esaten zuen: "Aurkitu hurrengo zenbakia sekuentzian. 1, 1, 2, 3, 5...". Pentsatzen hasi ginen eta konturatu ginen "Fibonacci" sekuentzia zela, hori jakiterakoan hurrengo zenbakia oso azkar aurkitu genuen, 8 zen. Hori egiterakoan han zegoen kaxa batean 6 zenbakiak idatzi genituen, zabaldu egin zen eta han giltza bat topatu genuen.

Eta nola ez, berriro pantaila agertu zen: "Bigarren pista topatzeko, eserlekuetan begiratu", esan zuen oraingo honetan. Oso ondo begiratzen hasi ginen eta bat-batean, Paulek zerbait topatu zuen. Eserleku baten azpian kaxa bat zegoen. Kaxa zabaldu eta paper bat topatu zuen. Hau zegoen idatzita: "Broma bat da, ez pentsatu hain erraza izango denik". Ez genuen sinetsi, falta zitzaiguna.

Hamabost minutu beranduago, beste kaxa bat topatu genuen beste eserleku baten azpian, eta oraingo honetan ez zen broma bat. Pista irakurri eta oso azkar bigarren giltza topatu genuen. Hori bai, oso arraroa iruditu zitzaigun, ez zen pantailarik agertu eta ez zuten deitu ere ez.

Ba horrela iritsi gara puntua hontara. Ez dugu ez pistarik, ez argirik, ezta internetik. Naia lurrean eseri, eta pentsatzen hasi da. Besteak bitartean bagoiko eserlekuetan eserita gaude. Bi minutu pasatu dira, baina ematen du zazpi ordu izan direla, eta orduan pentsatzen hasi naizenean inoiz ez ginela irtengo, Naiak irtetzeko modu bat aurkitu du. Bagoiko aterantz abiatu da. Besteak jarraitu egin diogu eta atean dagoen botoiari eman dionean, atea zabaldu da. Momentuan, argi guztiak piztu, eta pantaila berriro agertu da. Azkenengoz, hau esan digu: "Oso ausartak izan zarete eta pentsatzen nuen inoiz ez zitzaizuela okurrituko atean dagoen botoiari ematea".

Amaitzeko, bagoitik irten, eta etxerantz abiatu gara gurasoekin elkartzeko eta gertatu den guztia kontatzeko.

BIRUS BERRI BAT

B MAILA

2.saria

**SUGOI ZUBIZARRETA
REVUELTA**

Orain dela hiru urte, zientzialari batzuk esperimentuak egiten ari zirela, esperimentu horietako bat gaizki atera zen. Hori dela eta, hauts mordo bat askatu zen laborategitik, baina ez zen hauts arrunta. Aurreko urtean jakinarazi zuten hauts horren ondorioz birus bat sortu zela, eta lehenengo biktima Frantzian agertu zen.

Birus horrek arnasa hartzea zailtzen zuen, eta "Arnasbeltz" izena jarri zioten. Lehenengo, Frantzian eta Alemanian zabaldu zen, eta handik gutxira beste herrialde guztietan ere bai. Orain dela bi urte, mundu osoa infektatua zegoen.

Herrialdeek euren haserrea adierazi zuten, eta azkenean urte beteko koarentena agindu zuten. Dena itxi zuten, laborategiak izan ezik. Zientzialariak mundu osotik sendagai baten bila ibili ziren, baina ezin izan zuten aurkitu, eta jendea hiltzen hasi zen. Gero eta pertsona gehiago gaixotzen ari zen.

Koarentena amaitu zenean, maskararekin ibiltzea derrigorrezkoa bihurtu zen. Hala ere, herritarrak nazkatu egin ziren maskara beti jarrita edukitzeaz, eta manifestazioak eta borrokak sortu ziren kaleetan. Hori ikusita, zientzialariek dirulaguntzak eskatu zituzten froga gehiago egin ahal izateko. Azkenean, 23 milioi euroko laguntza jaso zuten, eta sendagaiaren bila jarraitu zuten. Lortzeko gero eta gertuago zeuden, baina oraindik ez ziren iritsi.

Poliki-poliki, eskolak eta lanak berriro ireki ziren, baina maskararik gabe ezin zen joan. Agurra ukondoarekin egin behar zen, eta pertsonen artean bi metroko distantzia gordetzea ezinbestekoa zen. Komun publikoak ezin ziren erabili, eta tabernetan plastikozko edalontziak erabili behar ziren; bestela, 550 euroko isuna jasotzen zen.

Hiru hilabete pasatu ondoren, birusak asma antzeko sintomak zituela jakinarazi zuten. Horri esker, asma tratatzeko erabiltzen diren sendagaiak oinarri hartuta, zientzialariek sendabide bat sortzen saiatu ziren. Lehenengo pertsonan probatu zutenean, sendagailuak funtzionatu zuen. Horren ondoren, sendagaia merkatura atera zuten, eta pixkanaka jendea sendatzen hasi zen.

GERLA SORALUZEN

B MAILA

3.saria

**ARIANE MURIEL
CADENAS**

2030eko irailaren 25a

Gogoratzen zarete Ukraina eta Rusiaren gerlaz? Ba orain 2030eko irailaren 25a da, eta gerla Soroluzeraino heldu da. Eibarren bonba bat bota dute. Eibarreko jendea Soroluzen dago ezkutatuta, denok bezala. Eibarren 1.810 hildako eta 596 zauritu daude.

2030eko irailaren 26a

Gaur lanean ginela, babesleku batera joan behar izan gara, bonba bat bota dutelako herri gaineen. Herria guztiz suntsituta dago, eta esan digute ordu batzuk egon behar dugula babeslekuan.

2030eko irailaren 27a

Gaur Muka enpresako langileak gerlara joan gara. Formakuntza bat eman digute, eta bakoitzari lan bat egokitu diote. Niri, adibidez, medikua izatea. Zauritu bat etorri da odolatan, eta desmaiatu egin naiz.

2030eko irailaren 28a

Gaur gerla Errioxarantz zabaldu da. Haron bonba bat bota dute: 1.248 hildako eta 2.576 zauritu daude. Niri soldadu izatea egokitu zait, punteria oso ona dudalako. Beste armadako jeneral bati tiro bakar batekin eman diot, eta lurrera erori da.

2030eko irailaren 29a

Gaur jeneralak esan dit,

-Soldadu, mapa hau zure bizitzarekin zaindu behar duzu, bestela tunel sekretuak aurkituko dituzte.

-Ongi da, jenerala, oso ondo zainduko dut. Nirekin eramango dut denbora osoan. Gauean, lotan nengoela, niregana hurbildu dira eta mapa lapurtu didate.

2030eko irailaren 30a

Gaur goizean infiltratu batzuk sartu dira tuneletatik. Soldaduak nokeatu egin dituzte eta beraien arropak jantzi. Gero, tiro bat bota dute eta inor ez da konturatu soldadu hori falta zela.

Jenerala tuneletatik joan denean, kamuflajezko arrokekin moxorrotutako etsaiak ikusi ditu. Patruilatzen ari nintzela, tiroz zauritu egin naute. Zorionez, bizirik nago, baina oso zaila da hau guztia jasatea.

2030eko urriaren 1a

Gaur, azkenean, gerra bukatu da. Dena suntsituta dago: etxeak, kaleak,... jende pila bat hilda eta beste jende asko zaurituta. Baina denon artean dena berreraikiko dugu. Zaurituak zaindu eta elkar ondo tratatu.

Elkartasuna izango da gure arma indartsuena gerra honen ondoren.